

Añorga

Lierni Oramendi (943-363436)

duela bost urte bezala, Estatu Batuetako Idaho estatuko Boise hiriburuan Jaialdi 2000 izeneko ekitaldia egingo da. Han dira, azkeneko aldi hartan bezala, Añorgako Arkaitz dantza taldeko kideak. Auzoko dantzariekin batera Euskal Herriko beste hainbat lagun eta talde ariko dira: Tapia eta Leturia trikitilariak, Irungo Txorimaloak eta hainbat bertsolari eta harrijasotzaile, besteak beste. Helburua, Atlantikoaz bestaldeko euskaldunei erakustaldi eta emanaldi ederrak eskaintzea da, beti ere giro bikainean.

Boisen mende hasiera eta erdialdean joandako euskaldunen seme-alaba eta biloba franko bizi da. Gutxi gora behera bost urtean behin Euskal Jaia antolatzen dute. Jai horretan Euskal Herriatik joaten direnez gain, EEBB-etako leku askotako euskal-

Arkaitz taldea, Boisen

Auzotarrak jaialdi 2.000 izeneko festan dantzatzera joan dira



Arkaitzeko lagunak duela bost urte Boisen egon ziren.

dunak bildu ohi dira: Reno, Elko, Los Angeles, New York, Washington...

Hilaren 28an aritzekoak

Jaialdia hilaren 27an hasi zen, Boiseko Euskal Museon egin zeñ inauguraketarekin.

Arkaitz taldekoak hilaren 28an ariko dira, eta ez nolahi gainera. Dantza saioa Morrison Center antzokian izango da, eta añorgatarrek 5.000 lagun aurrean jardungo dute. Arkaitzeko lagun ez gain, Boiseko Oin-kari, Chinoko Gauden Bat eta

Auzotarrak Morrison Center antzokian ariko dira, 5.000 lagun aurrean

Renoko Zazpiak Bat taldeek parte hartuko dute dantza erakustaldian. Hilaren 29an, berriz, hiri ondoko zelai batean ipinitako estalki batean hainbat ekitaldi egingo dira: herri kirolak, dantzak, artisautez erakusketa, bertso saioa... Gau partean, dantzaldia izango da Boiseko Gaupasa taldearekin. Igan-dean ere egongo da zer gozaturik. Guzti guztia EEBB-tako gure anaia-arreben herrimina asetzeko.

Altza

Irutxulo

altzatarrona taldeak hainbat alegazio aurkeztu dio Auditiz Akularren 3.000 etxebizitza eraikitze proiektuari. Izan ere, talde honen esanetan, mota honetako egitasmo bat onartu baino lehen, Altzako eragile, elkarte eta herritarren iritzia entzun behar da aurrena. Bien bitartean, proiektua bertan behera uzteko eskatu die Udalarari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Agustin Rodriguez Altzatarrona taldeko kidearen esa-

netan, "Auditiz Akularreko proiektua Altzaren herri izaeraren kontrako eraso da". Horren adibide, baserrien galera aipatu du Rodriguezek: "gure herriko historiaren aztarnak dira baserriak. Foru Aldundiaren arabera, Auditiz Akularren baserriei utsiko zaie. Hala ere, baserri horiek etxez inguratuta egongo dira eta ezingo dute nekazaritza jarduerarik egin. Beraz, etorkizunean galdu egingo dira".

Etekina Altzara bideratu

Bestalde, Udalak eta Foru Aldundiak Auditiz Akularreko proiektua Altzan egin beharreko zenbait hobekuntzarekin lotu izana salatu du Altzatarronak: "azpiegitura horietako batzuk onuragarriak izango dira, aspaldiko arazoei eta gabeziei aurre egingo diete eta. Hala eta guztiz ere, aspaldi eginda behar

zuten", adierazi digu Rodriguezek. Ildo honetatik, auzotar hauek zalantza handia dute etxebizitzaren salmentatik lortutako etekina zertarako erabiliko ote den. Altzan azpiegitura falta dagoela diote eta, beraz, diru hori auzoarentzat bideratu behar litzatekeela. "Susmoa dugu, ordea, beste hainbatetan bezala Donostia erdialdera bideratuko dela", adierazi du Agustinek.